

# ihintza

2022ko maiatza

112. zenbakia

XXXIX. urtea



# ZER NON NORK

<b>Aurkezpena</b> .....	03
<b>Hezitzaileak mintzo</b>	
Jon Lezamiz, IKASGAIAZ, BIZITZAZ, GERRAZ...	04
Patxi Ezkiaga, OSTADAR .....	06
<b>Praktika onak</b>	
Iñigo Azkue, KIMU 2021-2022. Salletar balioak ikasi eta bizitzeko formazioa .....	07
<b>Lekukotzak</b>	
Jose Manuel Agirrezabalaga, SALLESTAR EUSKAL IDAZLEAK LIBURUTEGIA .....	08
<b>Gogoetak</b>	
Joxe Agustin Arrieta, EZ NAIZ NI GERRAREN ZALE .....	11
Joxe Ertzibengoa, BAKALEROAK .....	12
Pello Esnal, AFRIKAKO EKUMENISMOA (Pedro Alberdi gogoan) .....	13
Aitor Zulaika, AUSARTZEA ERABAKITZEN DUT .....	15
<b>Kontu kontari</b>	
Juan Antonio Lopetegi, PAPER ZAHARRAK .....	16
Juan Luis Urmeneta, NIRE TALAIATIK .....	18
<b>Ikasleen Txokoa</b>	
Indira Diez Hertart, NIRE ESPERIENTZIA SAN LUIS LA SALLEN .....	19
Miren Urizar, JOSTAILU KATALOGOETAN SEXISMOA NAGUSI .....	20
Jon Errasti, TELEBISTA AURREAN ORDU TXIKIAK ARTE .....	20
<b>Poemak</b>	
Graxi Solorzano, ARGI URRATZEA .....	21
Bernardo Atxaga, XABIER LETE, AZKEN GORAZARREA .....	22
<b>Topaketa</b>	
Inazio Acha, BERNARDO ATXAGA KOLEGIOAN .....	25



**IHINTZA – Salletarren aldizkaria. 1984. urtean sortua**

**Zuzendaritza eta erredakzioa: La Salle, Madalena Jauregiberri, 2– Donostia 20014**

**Maketatzaile: Javier Alonso**

**L.G.: SS 485/84 ISSN: 1135-3945**

**Gertu inprimategia**

**U**daberriaren erdi-erdian dator *Ihintzaren* ale berri hau. Natura osoa berpizturik dugunean, bizia gailendu zaigunean indar berriz, kristauok pazkoa ospatu berri dugunean, pandemiari ere buelta ematen ari garela dirudienean... Zoritxarrez Ukrainako gerrak bere ondorio txar guztiekin hor jarraitzen duenean, armen eragina eta triskantzak alboratuz elkarrizketaren bitartez konponbidea noiz etorriko ote den ez dugunean ikusten. Nola gainditu orain arteko hondamenak, sufrimendu eta zauriak? Nola mantendu eta suspertu gure itxaropena eta behar dutenei laguntza luzatu?

Zenbaki honetako zenbait ekarpenetan islaturik dira egoera hauek.

Hara zenbaki hau nola osatu dugun:

**Hezitzaileak mintzo** atalean boluntario gisa atzeratuekin bere ekarpena egiten ari den hezitzaile arduratsuak bere esperientzia islatzen du. Eta, bidenabar, Patxi Ezkiagaren aspalditxoko *Ostadar* ipuina berrargitaratzen dugu.

**Praktika onak** moduan aurtengo *Kimu* izeneko salletar-formazioan bizi izandako esperientziaren berri ematen du idazleak.

**Lekukotzak** atalean orain arte Irunen izan dugun *La Salle Euskal Liburutegiaren* berri ematen da eta etorkizunean izango dugun *Salletar Euskal Idazleak* liburutegiaren aurkezpena egiten.

**Gogoetak** arloan lau jarri ditugu, hizpidetzat hartu dutenak Ukrainako gerra, Ternuan izandako itsasontziaren urperatzea, Afrikan misiolari bizi izandakoaren espiritualtasuna eta idazleak bere espiritu-ibilbidea.

**Kontu kontari** bi idazle datozkigu: lehenengoa XIX. mende hasierako paper zahar batetik abiatuz kontu-kontari eta bigarrena gaur eguneko bere talaiatik.

**Ikasleen txokoan**, oraingo honetan, hiru idazlan bakarrik ditugu. Lehenak jasotzen du txikitatik ikastetxean bizi izandako esperientzia, orain ikastetxeko bere egonaldia bukatzeaz duenean. Bigarrenak eta hirugarrenak, Batxilergoko ikasleak biak, gai jakin batzuei buruz euren iritzia azaltzen dute.

**Poemak** atalean Azkaineko adiskidearen poema eder bat jarri dugu eta Bernardo Atxagak aspalditxoan Xabier Leteri buruz idatzitako poema eta Ihintzarako idatzi duen hitzaurrea.

**Topaketa.** Donostiako La Salle Ikastetxearen 75. urteurrena aurtan ospatzen zela-eta Bernardo Atxaga, idazle ezaguna, gonbidatua izan zen Ikastetxera Batx2ko ikasleekin topaketa bat izan zezan. Bisitaldi eta topaketaren berri ematen digu kronistak. Bisitaldi honen emaitzak izan ziren Leteri buruzko Atxagaren poema *Ihintzan* argitaratzea eta hitzaurrea.

Ikasturtearen amaiera oparoa opa dizuet guztioi. Bakearen desioa eta itxaropena jarduera jakinetan gauzatzen saia gaitetzela, izan gaitetzela bakegile edonon eta denekin. Agur!

Jose Manuel Agirrezabalaga

# IKASGAIAZ, BIZITZAZ, GERRAZ...

Jon LEZAMIZ

Nasrudin-ek bizitzan zehar ogibide asko izan zituen. Horien artean txalupari ere izan zen. Eguneroko ogia irabazteko jendea ibaiertz batetik bestera eramaten zuen. Horrelako batean unibertsitateko irakasle batekin topo egin zuen eta honek zenbait galdera egin zizkion. Lehenengoa, ea zein zen hogeita zazpi zenbakiaren erro kubikoa. Nasrudin-ek ez zekiela erantzun zion. Bigarrena ea ezagutzen duen Swami Vivekananda jakintsuari buruzko gorabeherarik. Nasrudin mutu geratu zen zer erantzun jakin gabe, lehendabiziko aldiz entzuten zuela holakorik. Orduan irakasleak harrিতта esan zion bizitza erdia alferrik galdu zuela. Nasrudin isilik eta gogoetatsu geratu zen une batez. Gero ihardetsi zion: *Igeri egin dezakezu?* Ezetz borobila bota zion irakasleak. Brastakoan gehitu zion Nasrudin-ek: *Dena alferrik galdu duzu orduan, hondoratzen ari gara eta.*

Nerbioi ibaian, Bilboko itsasadarrean hain zuzen, txikitan ezagutu nituen txalupari asko. Gogoan dut Lutxana Erandiotik Barakaldora eginiko zeharketa. Ezkerraldera gutxitan joan ohi ginen nire familiakook eta niretzat abentura bat zen ezohiko bidai hura. Nire aitarentzat, ordea, ez zen hain ezezaguna, Nerbioko uretan, Deustuko Erriberan ikasi baitzuen igeri egiten. Bengoak, nire ikaskideak, -ez dakit bere izena, normalean abizenaz deitzen genion eta elkarri- egunero hartzen zuen txalupa Euskalduna ontziolatik hurbil zegoen Olabeagatik Deustura igarotzeko, *Los Hermanos* ikastetxerako bidean zihola. Ez dut uste Bengoa eta txalupariaren arteko elkarrizketa eskolako gauzez izango zenik. Ziur nago Bengoak bazekiela igeri egiten, gero Ertzaintzaren talde berezien buru izan zen eta. Ez zen Michael Phelps bat igeriketari izango, baina uretik burua ateratzen txapeldun, bai, jakina.

Garai hartako uraren kuxidada eta gaurkoa ez dira inolaz ere antzekoak. Horren lekuko dugu *anguleroen kantua*. Ez al zarete abesti honetaz oroitzen: *Entre las angulitas había un pez gordo...?* Farola hurbildu genuen eta hura sorpresa! *Así de grande y así de gordo*. Galanta omen zen kaka-mokordoa, alajaina!



Ingelesko klaseetan erdipurdika dabilzan ikasle batzuei laguntza ematen diet astean bitan. Horietako batekin orain egun gutxi irakurri nuen Nasrudin-en istorioa. Kontakizuna amaitu ahala etorri zitzaizkidan ideia batzuk. Positiboena: istorio horien bidez makina bat irakaspen edo irakasbide praktiko ikas daitezkeela. *Hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila herriko plazan*. Beste bat ez hain positiboa: ez du ezertarako balio ikasitako makina bat gauzak, alferrikako trastez *ganbara* betetzeko izan ezik.

Nik uste, istorio honek balio dezake hizkuntza lantzeko eta bide batez irakaspena edo *moraleja* jaso ahal izateko. Hau da, ez dugula denbora alferrik galdu behar behin eta berriro ezaupide eruditua pilatuz. Nire esperientziaren arabera, ingelesa ikasten ari nintzela, Nasrudin istorio labur asko ulertu nahian, hizkuntza lantzeko aukera izatetik at, ezagutza baliotsurik franko jaso nuen. Tira, ingelesa arloan laguntzetik kanpo, bai euskaraz bai gaztelaniaz, beste ikasle batzuei laguntza ematen





saiatzen naiz. Nasrudin istorioaz amaitu ostean, lehen DBH-ko bi neska etorri zitzaizkidan, ebaluazioa errekuiperatzeko orri batzuk zekartzatela eskuan. Orduan hurrengo saioan saiatu ginen poema batzuk aztertzen eta sailkatzen: *cuarteto, redondilla, serventesio, lira...* gora eta behera; ea errima kontsonantea ala asonantea zen; eta deskuidu batean hitz berri askoren uholdea erori zitzaigun gainera: oxitonoa, paroxitonoa, proparaxitona, iambikoa, arte nagusia, arte xehea, sinalefa, katafora, heptasilaboa, alejandrinoa, sinestesia... Ikasle gizagaixoak! Oraindik idazten hala moduz eta irakurtzen hortxe-hortxe, baina programatzaileek bulegoetako talaiatik beharrezkotzat jo dute Goierrin eta Urola Garaian lira zer den menderatzea. Ikas ezazu, bada: Lira, gaztelerazko eta italierazko metrikari, bost bertso ahapaldi mota bat da, hiru bertso heptasilaboz eta bi bertso endekasilaboz osatua, 7a, 11B, 7a, 7b, 11B xedapena dutelarik. Antza denez, ez dago gizatasunean aurrerabiderik horixe bera menderatu barik.

Hirugarren saioan euskara lantzeko mutiko bat heldu zitzaidan. Zer zeukan etxeko lan bezala galdetu nionean atera zidan fitxa bat. Ene, sumatzen nuena, beste hitz saldo bat aurrean!: Emendiozkoak, juntagailuak, aurkaritza lokailuak, perpausa bakuna, sintagma... Aurrera segi baino lehen. Nire buruari nion: et, et, et! Ezta pentsatu ere! Egun horietan ezin nuen nire burutik kendu Ukrainan pairatzen ari zen triskantza eta datorren egunerako egunkaritik albisteak aukeratzen saiaturiko nintzela erabaki nuen, inbaditutako lurralde hartako egoera hura ahalik ongien azaltzeko euskaraz. Baina bien bitartean zerbait egin behar nuen eta nire eskuarteko altxorrera jo nuen eta hantxe topatu Patxi Ezkiagak sortutako testu bat: *Ostadar*. Narrazio hura 2006an sortu zuen ikasleek bakearen egunean irakur zezaten. Gero *Bihotz galduaren bila* liburuan argitaratu zen. Eta poz-pez geratu nintzen, horrela landuko bainuen euskara eta, bide batez, irakasbide esanguratsua begi bistan utzi.<sup>1</sup>

Ostadarren testua lantzean, ez dakit euskara arloan zein neurritan ikasi zuen ikasleak. Alabaina ziur naiz gerraren sarraskiak hunkituta mintzatzen ari nintzaiola eta, nolabait ere, atsegin litzaidake

<sup>1</sup> Testua ondorengo artikuluan dator.

mundua baketzeko betebeharrak Francesc Torralbak idatzitakoa partekatzea. Emozio hunkigarri hari edukia jartzekotan honako lerroalde hauek erantsiko nizkioke.

Begirada globalak gure inguruetik oso urrun gertatzen diren gatazka belikoei aurre egitea eskatzen du, gureak balira bezala. Urruneko gerren eta haien biktimen aurrean dagoen axolagabekeria da gaitz nagusia. Aukera horren aurrean, aktiboki egin behar zaio aurre axolagabekeriaren globalizazioari, gerrara ohitu baikara, atze-oihal normal bailitzan. [...]

Indarkeria ez da mundua baketzeko bidea. Ez da erantzun zuzena. Gaitza da eta txarra baino ez du sortzen. Onartezina da gatazka konpontzeko bidetzat erabiltzea. Defendatzen duena suntsitzen du: duintasuna, bizitza, gizakien askatasuna.

Desberdintasuna ezin da bakerako oztopo izan. Bakea ez da eraikitzen desberdintasun etnikoak, linguistikoak, sozialak edo kulturalak deseginez; Alderantziz, horiek aitortzea eskatzen du.<sup>2</sup>

Ea eskoletan eta familietan bakerako haziak ereiten saiatzen garen etengabe, gure uzta izan dadin *desaprender la guerra*<sup>3</sup>, kantak oihukatzen duen antzera. Hala bedi!



<sup>2</sup> Itzulpena nirea da. Francesc TORRALBA, *La revolución ética*, PPC, Madril, 2021, 152-153 orrialdeetatik ateratako lerroak dira.

<sup>3</sup> Luis Guitarra-k abesten duen kanta da *Desaprender la guerra*.

## OSTADAR

Patxi EZKIAGA

**E**gun batez, orain dela denbora asko, gure planetako koloreak lehia eder batean hasi ziren, bakoitzak beste guztiak baino politagoa zela uste baitzuen.

-Edertasunaren kolorekoa naiz -esan zuen Urdinek-, ibai eta itsaso garbiena, zeru distiratsuen, begi errugabeena.

-Ni landareen kolorekoa naiz -erantzun zion harro Berdek-, elur urtu berriarena, berehalakoan maitemintzen duten begiena.

-Ni berriz, errearena naiz -jarraitu zuen Horik-, ezti gozoarena, ama eguzkiarena. Gaua zulatzen duten abereen begiena.

-Ni arrosa, mitxoleta eta krabelin ederrenen kolorekoa naiz -bota zuen harro Gorrik-. Negar-malkotan dauden begiena ere bai.

-Ni udazkeneko historik politenen kolorekoa naiz -esan zuen Laranjak- eta ez diet inoren begiei minik egiten, hain naiz gozoa.

-Ni ametsen kolorekoa naiz -jarraitu zuen Anilek- eta haurren eta maiteminduen begietan bizi naiz batik bat.

-Ni, berriz, ardo zaharraren kolorekoa naiz -bukatu zuen Morek- eta horregatik itotzen ditut gizon-emakumeen begietako penak, horregatik pizten ditut haien itxaropenak.

Eztabaida berotzen hasi zen eta, lehia bere okerreanean zegoenean, bat-batean zeruak eztanda egin zuen eta tximist Zuri-Zuri batek bete zuen ortzia. Trumoiak bukatu zirenean, euri-jasa ikaragarria, ibaia bailitzan, hasi zen zerutik behera.

Beldurrez eta izututa, Koloreak aterbe bila ibili ziren, bata bestearen ondoan. Orduan Eurik, ikusi zituenean, esan zien oihuka eta haserre antzean:

-A zeinen ergelak eta tontoak zareten, zuek Koloreak! Zergatik ari zarete bata bestearen kontrako lehian? Zergatik menderatu nahi dituzue besteak? Ez al dakizue bakoitzari zeregin ezberdina eman zizuela Jainkoak, sortu zintuztenean? Kreatzaileak banan-banan maite zaituzte, zuen guztien

beharra baitauka. Har ezazue bata bestearen eskua eta zatozte nirekin. Zeruan jarriko zaituztet, zabal-zabalik, ostadar eder batean. Bakean bizi zaitezketela erakutsiko diozue munduari. Bake-zeinu bihurtuko zarete, itunaren eta esperantzaren ikur.

Joan ziren, beraz, Eurirekin eta han jarri zituen zeruan, inoiz ikusi den soinekorik ederrenarekin.

Berriro lurrera jaitsi zenean, Eurik Beltz topatu zuen, gauari begira, negarrez.

-Zergatik ari zara negarrez? -galdetu zion.

-Beste koloreekin batera zeruan jarri ez nauzulako -erantzun zion Beltzek.

-Badakizu zer? -proposatu zion orduan Eurik-. Erne ibili eta koloreen bat hiltzen ikusten duzunean, bere tokia hartuko duzu.

-Baina nik ez dut nahi Koloreen heriotza -esan zion Beltzek Euriri.

-Orduan Koloreen arteko Bakearen Zaintzaile jarriko zaitut -erantzun zion Eurik.

Hitz hauek entzun orduko, Beltz itxuragabe poztu zen eta geroztik ari zaigu esaten ez dela inor hil behar, gerrak ez duela zentzurik.



Horrela, Jainkoak, lurra garbitzeko, Euri bidaltzen duen bakoitzean, harro-harro jartzen dituzte Zurik eta Beltzek beste koloreak zeruan, elkar maitatu behar dugula gogorarazteko, eta guztiak garela, mundua Bakearen zorionean biziko bada, beharrezko.

(*Bihotz galduaren bila*. La Salle, Donostia 2009, 7-9 or.)

## KIMU 2021-2022

## Salletar balioak ikasi eta bizitzeko formazioa

Iñigo AZKUE



2021-2022 ikasturte honetan, Kimu salletar formazioa egitea egokitu zait eta, hura amaitzeko saio bakarra falta zaidala —Misio egunean izango da, ekainaren 25ean, San Asension—, gaingiroki azaldu nahi dut nire esperientzia. Zer egin dugun adierazi baino, gure balioen irakaspena eta bizipena nolakoa izan den azaldu nahi dut.

Ikasturte honetako Kimu formazioan, Irun, Zarautz, Zumarraga eta Loiolako ikastetxeak ezagutu ditugu, eta ikastetxe horietan guztietan adeitsu hartu gaituzte bertako irakasleek eta salletarrek. Hona, beraz, lehen balioaren irakaspena: egin harrera goxo eta beroa gurera datorrenari.

Lau hitz xume hauek laburbiltzen dute, euskaraz, Kimu formazioak erakutsi digun beste balio bat: zer ikusi, hura ikasi. Salletar anaiek zentzu betea ematen diote esaldi horri, eta ezinbesteko pertsonak ditugu, noski, nondik gatozen jakiteko. Irunen, hiru salletar anaien bizi-ibilbidearen testigantza entzun genuen: anai Jose Manuel Agirrezabalagarena, anai Mikel Balerdirena eta anai Felix Ezamarena. Haien bidez ikusi eta ikasi dugu zer den bizi-hautapen zintzo eta eskuzabal bat egitea, hezkuntza maitatzea, pazientzia izatea eta, geroak zer dakarkigun ez jakin arren, Jainkoarengan konfiantza osoa izatea.

Zarautzen, La Salle erakundea bere sorreratik etengabe lantzen ari den beste balio bat ikasi genuen: leialtasun sortzailea. Sormenari leial, La Sallek ikaskuntza testuinguru berri bat sortu du, bere eskaintza munduak izan dituen aldaketetara eta gizartearen gaur egungo eskakizunetara egokitzeko. Premiazkoa da, izan ere, eguneratzea, inoiz berritzen ez dena bere horretan agortzen baita.

Zarautzen, era berean, La Salleren balio lehenak gorpuzten dituen atal funtsezkoa landu genuen: pastoralala. Gure lan guztia inguratzen duen lurrin berezi hori da pastoralala, barneratzea, laguntzea, babestea, sinesmenaren aniztasuna, argia, indarra, itxaropena, bidea... gure etengabeko bilaketan. Bide horretan elkarrekin aurkitzeko behar dugu pastoralala.

Zumarragan, harremanaren garrantzia landu genuen, elkartaren eta elkarte egitearen premia, eta, horrez gainera, elkaturik banakoen batura baino askoz gehiago garelako ikasi genuen. Harremanaren eta elkartzearen balioak bizitzeko, zentzumenak aldizka piztu eta itzali genituen banakako, binakako eta taldekako ariketetan. Ondoren, hori guztia barneratzeko, *Hara* jarduera bat egin genuen, paregabea baita integrazio-lan hori egiteko.

Azkenik, Donostiako Loiolan, gure ikastetxea edo lan-jarduna promozionatzeko lan bat aurkeztu behar izan dugu taldeka, eta benetan hunkigarria izan da talde guztiek zer lan kontziente eta saiatua egin duten ikustea. Loiolako egoitzako bosgarren solairuko langileok bisita gidatu bat egin genien kimulariei bosgarren solairuan bertan, eta mezu garbi hau zabaldu genien: etorri lasai gurera eta egin dezagun lan elkarrekin, elkarren beharra dugu eta.

Loiolako saioan aurkeztutako lan guztiak bikain-bikainak izanik, bereziki nabarmendu nahi dut, alde batetik, Beasaingo lankideen ahalegina, bertsoak kantatu baitzizkiguten, ukelele batek lagunduta, beraien bideoa erakutsi aurretik eta ondoren: salletar balioen erakustaldi praktikoa ederra izan zen, euskal senera ekarria. Eta, bestetik,

Zarauztik etorritako zortzikotearen giro ona, elkarlana eta batasuna azpimarratu nahi dut. Guztiak emakume izanik, behar bereziak dituztenen hezitzaile dira eta, egunez egun salletar balioak landuz, erreferente bihurtu dira beraien jardun-alorrean.

Kimuk ekarri digun bestelako irakaspen batekin bukatu nahi dut idatzi labur hau. Bilbo sektoreko egoitzaren bosgarren solairuko sei langilek hasi genuen ikasturte honetako kimu formazioa, eta lauk bukatuko dugu, Unaik eta Raquelek ez dutelako La Sallen lanean jarraituko. Zuek biok ere gure bihotzetan izango zarete, beti. Horra, bada, azken irakaspenera: ez dakigu Jainkoak noiz eta nora deituko gaituen; beraz, saia gaitezen elkar zaintzen eta maitatzen bizitzak elkartzen gaituen denboran.

## SALLETAR EUSKAL IDAZLEAK LIBURUTEGIA

Jose Manuel AGIRREZABALAGA

Ibilbide luze xamar baten ondoren sortu dugu *Salletar Euskal Idazleak* izena jarri diogun salletar liburutegi apal hau. Ibilbide luzea izan du, 50en bat urteren ondoren etorri baita. Sorreran La Salle Euskal Liburutegia izan du. Has nadin, beraz, Euskal Liburutegia hainbat urtetan zer izan den azalduz, zenbait datu idatziz utzirik.

### La Salle Euskal Liburutegia

1970 hamarkadaren hasieran Zarauzko Salletar elkarteko Anaiek, beren liburutegian zituzten euskal liburuak ikusiz, atal hori sendotzea pentsatu zuten, Euskal Herriko beste salletar ikastetxe eta irakasleei ere eskaini ahal izateko asmotan. Jose Luis San Martin zen garai hartako Zarauzko Anai Zuzendaria. Berehala izan zuten sortu berria zen Euskal Batzordearen bultzada. Batzorde honek 1971n jaso zuen Salletar Barrutian ofizialtasuna. Bere xede nagusia gure Elkarteetan eta Ikastetxeetan euskarari eta euskal kulturari bultzada ematea izan zen. Eta bere helburuetako bat *euskal liburutegi bat sortzea eta mantentzea*<sup>1</sup>.

Zertarako Salletar Euskal liburutegi bat? Garai hartan tokian-tokian euskal liburuak oso urriak zirenez, era honetan eskuratzeko ahalbidea eskaini nahi izan zen.

Urte gutxi barru, 1976an edo, Euskal Liburutegia Irungo Salle eneara eramana izan zen, kokapen egokiagoa zelakoan eta 2. solairuko gela batean jarri. Hasiera batean Martin Lasak egin zuen haren jarraipena, eta 1980an Nikolas Alzolak hartu zuen bere gain ardura hori pare bat urtez. Ondoren Juan Luis Urmenetak. Eta 3. solairuko areto handira eraman eta gero, arduradunak izan ziren, 1989tik aurrera Inazio



<sup>1</sup> Bilbo Barrutiko II. Kapituluak (1969-1971), 24. proposamena.



Acha eta Leon Mantxola elkar lanean, 1991ean Luis Mari Lopez de Dicastillo eta 1996tik 2014ra, 18 urtez, Edorta Zabaleta. Liburutegiak bere aurrekontua izan zuen liburuak, antzinakoak eta berriak, erosteko eta euskal aldizkarien harpidetzak ordaintzeko.

Edortak sarritan eman zuen bere garaiko Euskal liburutegiaren berri *Ihintza* aldizkari honetan, *La Salle Euskal Liburutegiaren berriak* izenburupean. Liburuaren kopurua hazten joan zen, 2003an 11.400 liburu inguru ziren, 2006an 13.000tik gora. Eta iritxi zen 18.350 liburu fitxatu biltzera 2.019 urtean.

Hara, liburu haien banaketa sistema dezimalaren arabera:

- 0 – Gai orokorrekoak (Entziklopediak eta Aldizkariak): 3.200en bat ale.
- 1 – Filosofia, Psikologia: 200en bat.
- 2 – Erljioa, Teologia, Katekesia: 1.400en bat.
- 3 – Gizarte zientziak: 2.200en bat.
- 4 – Euskal hizkuntzalaritza: 1.600en bat.
- 5 – Zientzia zehatzak, natur zientziak: 550en bat.
- 6 – Zientzia aplikatuak: 500en bat.
- 7 – Artea, Aisialdia, Kirola: 1.500en bat.
- 8 – Literatura: euskal literatura eta itzulpenak: 7.200en bat.

Gainera euskal herriko diapositiba bildumak eta diskoak ere gordetzen ziren.

Garai haietan maileguak egin izan zitzaizkien Andoain, Bilbo, Donostia, Errenteria, Eibar, Irun, Iruñea, Sestao eta Zarauzko salletarrei. Edortak 2005ean idatzi zuen aldizkari honetan “*Zorionez, azken urteotan gure fondoan erabilpena gero eta handiagoa izan da*”<sup>2</sup>, eta 2002, 2003 eta 2004 datuak eman zituen urtez urte.

2014tik aurrera Sabin Ezeizak hartu zuen liburutegiaren ardura, bere zeregina liburutegia mantentzera eta aldizkarien harpidetzak ordaintzera mugatuz. Zergatik? Liburutegiaren erabilerak behera egin ari baitzuen, tokian-tokian jada bazituztelako euskal liburuak.

Ondorioz, 2018ko udazkenean euskal liburutegiarekin zer egin planteatu genuen geure artean. Eta talde bat biltzen eta pentsatzen jarri zen irtenbideren baten bila. Talde honek zortzi bilera egin zituen, aurtengo –2022ko– martxoaren 18koa azkena izanik. Taldean aholkulari izan ditugu, besteak beste, Paulo Agirrebaltzategi, frantziskotarra, Luken San Sebastian, Donostiako La Salle ikastetxeko zuzendaria, eta Paulí Dávila Euskal Unibertsitateko katedraduna. Eta konklusio honetara iritxi izan gara: salletar ondareztat har genitzakeen liburu eta dokumentuak gordetzea zela komeni zitzaiguna eta gainontzeko guztia beste erakunderi eskaintzea, herritarren zerbitzuan.

Erakunde ezberdinekin harremanetan jarri eta gure eskaintza onartu eta liburuak jaso dituztenak honako erakundeak izan dira, besteak beste:


- Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia), Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde gisa, beraiek aukeratutako 144 liburu eraman dituzte.
- Manuel Larramendi Bazkuna (Andoain), aldizkari bilduma hauek jaso ditu: Antzerti, Antzerti Berri, Anuario de Filología, Argia / Zeruko Argia, Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián, Euskalzale, Euzko Gogo, Sancho el Sabio, Zutabe, Kulixka Sorta.
- Carlos Blanco Aginaga Irungo Udal Liburutegiak gainontzeko liburuak jaso ditu, 10.000tik gora.

Eta guk, salletarrok, Salletar Euskal Idazleek idatzitako liburu eta dokumentuekin bakarrik geratu gara.

<sup>2</sup> Ihintza 58(2003-ekaina), 5. or.

## Salletar Euskal Idazleak liburutegia

2022ko martxoan jarri da abian. Liburutegi txiki bat izango da salletarron euskal ondarea gordeko duena. Irungo Salle eneko 3. solairuan kokatu da. Eta bere ardura Jose Anjel Arrizabalagak hartu du. Ez dira liburuak maileguz utziko, kontsultak bertan egin beharko dira. Liburutegiaren informazio zehatza aurkitu ahal izango da La Salle Weguneko esteka honetan: <https://lasalle.eus/argitalpenak/?lang=eu>.



Zer gorde dugun bertan? Hitz gutxitan esanda, salletarrek euskaraz idatzitako liburuak nahiz aldizkarietan agertutako artikulak, eta euskarara itzulitakoak ere. Baita La Salle erakundearen euskaraz agertutako eta agertuko diren eskola-liburu, egutegi, triptiko, informazio-horri eta abar.

2022ko apirilean 500dik gora dokumentu dira liburutegian bilduak: liburuak, txostenak, aldizkariak, artikulak, diapositibak, kasetak...

Arlo hauetan bana daitezke:

- Literatura: Poesia, bertsoak, nobelak, ipuinak, biografiak...
- Natur zientziak, matematika...
- Hezkuntza, irakaskuntza...
- Euskara-metodoak: Euskara mailaka...
- Gai erlijiosoak: Otoitzak, liturgia, katekesia, bizitza erlijiosoa...
- La Salleren ingurukoak: Fundatzailea, Salletar erakundea...
- Artea, margo-lanak...
- Aldizkariak: Ihintza, Unánimes.

Hizkuntzaren arabera:

- Euskaraz sortuak: 400en bat dira
- Euskaratuak: beste 100en bat

Idazleak: Hara aipamen labur bat:

- XIX. mendekoa: Michel Elissamburu
- XX. mendean, gerra ostekoak: Iñaki Olabeaga, Nikolas Alzola-Bitaño, Jokin Otaegi.
- 1970eko hamarkadatik aurrera Anai belaunaldi berrikoak. 15 idazlek edo badute libururen bat liburutegian. Oparoenak: Patxi Ezkiaga (50en bat liburu) eta Joxe Ertzibengoa (20ren bat).

Hauei gehitu beharko litzaieke talde-lanean egin izandako hainbat eta hainbat liburu, liburuxka, *Euskara Mailakako* egileak, SEIE (Salletar Euskal Idazleen Elkarte) izenpean ibiliak, pastoral taldeetan jardunak, etab.

Antzinako zenbait altxor aipagarri:

- Elissamburu, Michel (Frère), *Joannes Batista dohatsuaren bizia*. Lasserre baita, Baiona, 1891.
- Bruño Idaztiak, *Zenbakizti-lengaien ikastia. Ikaslearen idaztia*. La Instrucción Popular, Madril – Bartzelona, 1933.
- Bruño Idaztiak, *Lege zarra eta lege berria*. La Instrucción Popular, Madril – Bartzelona, 1950.
- Anonimoa, *Salle'ko Joan Bautista Deunaren bizitz-laburra*. K.I.A., Irun, 1955.

Hemendik aurrera ere Salletar Euskal Idazleen emaitzez aberasten joango da, zalantzarik gabe, salletarron euskal ondare hau.

# EZ NAIZ NI GERRAREN ZALE

Joxe Agustin ARRIETA

2022ko martxoaren erdialdean idatzia

**B**adakizu izenburu hau errenteriar aspaldiko bertsolari handi haren bertsotatik ateratakoa dela, Juan Frantzisko Petriarena (1835-1869), Xenpelarren *la gureak egin du* bertso famatutik.

## 1. Gerra batetik bestera

Covid pandemiaren gerratik ateratzen ari gara eta Ukrainako beste gerra batean sarturik gaude. Kaleko gizon bat bezala idazten dut, estrategia militarrez ezer ulertu gabe, eta ateratzen zaidan lehen gauza “gerrari ezetz eta bakeari baietz” esatea da. Aitortzen dut bekatu egin dezakedala inozoz, eta errealtate hori guztia konplexuagoa eta erlatiboagoa dela. Baina gerrak ez dira irabazten, lurrikarak bezala pairatzen dira. Gerra batean denek galtzen dute, eta ez dezagun hitz egin gerra zibila bada, senideen arteko liskarra baita. Gerrak “irabazten” dituztenek ere “galdu” egiten dituzte, hain sufrikario handia denez, non lehiakide guztiak gaizki ateratzen baitira.

Espero dut Europako, Ameriketako eta Errusiako diplomaziaren neurritasunak Ukraina salbatzea. Ukrainako herria mendebaldeko mundutik hurbilago sentitzen dut, eta are hurbilago bere historiagatik, erlijioagatik eta hemen ezagutu ditudan ukrainarengatik. Gerrek hil egiten dute, eta hau negargarria da, baina, are okerrago, gerrek hain hondatzen dute pertsonen eta herrien kontzientzia, non gatazka berrietara bultzatzen dituzten.

Batek Persiako Golkoko gatazka belikoak (1990-1991) gogoratzen ditu, Balkanetako gerra (1992-2001), Siria, Libano eta Israelen artekoa. Gerra



umiliazio izugarria da gizakiarentzat, eta horrek elkarrizketaren, negoziazioaren eta, azken batean, arrazoiaren porrota esan nahi baitu. Armek hitz egin behar dutenean, arrazoiaren ordez tragedia hasten da, eta orduan, teknologia modernotik sortutako gerra-buru izugarriekin, milaka biktima errugabe hil daitezke, eta, aldi berean, garaileen eta garaituen arteko gorrotozko eta arbuiozko horma gaindiezina altxatzen da. Gerrarekin denok gara zerbaiten galtzaile.

## 2. Bakea eta gerra



Ez naiz batere originala, izenburua Leon Tolstoi errusiar eleberrigilearen obra batetik baitator (*Gerra eta Bakea*, 1867). Badakigu hitz apalak bakearen mezulariak direla, eta harroak gerraren mezulariak. Eta egia da, umiltasuna, egia esan eta bakean bizi baita; harrokeria, ordea, liskar eta gerra hizkuntza da. Bakea eta gerra: bi hitz erabat kontrajarriak, justizia eta injustizia bezala.

Ukraina bakea nahi eta bilatzen somatzen dut, Errusian kontrakoa ikusten dut, eta bereziki Vladimir Putin presidentea. Gerra berez da gaitza, bertan guztiek, garaile eta garaituek, galdu egiten dutelako. Gerra politika txar baten ondoriorik tamalgarriena da.

Gerra elkarrizketa politikoa apurtzen denean hasten da eta, hitzak erabili beharrean, armak jaurtitzen dira. Gerra, beraz, erabateko giza porrota da: adimenak irabazi beharrean indar gordinak irabazten du, arrazoimena nagusitu beharrean indarkeria nagusitzen da.

Gerra nuklearraren izugarrikeriak kezkatzen nau. Errusian eta munduko herrialde batzuetan gordetako potentzia nuklearra hain da handia, ezen,



gaur egun, gerra batek gizateria osoa erail bailezake ordu gutxi batzuetan. Jabetu gaitezen horretaz, eta ekin diezaiogun bakearen biderei, justizian eta egian oinarritutako bake sendoari. Gerra, bidegabeko eraso baten aurrean defendatzea izan ezik, absurdua da beti, eta absurdu handiago bat ekar dezake, norberaren deuseztapenarena, alegia.

### 3. Inoiz ez gerrarik

Gatazka oso larriak ezagutu ditugu Persiako Golkon, Serbian eta Bosnian, ez dezagun ezer esan Afrika kontinenteaz, eta orain sutan dago Ukrainan. Gerra guztiak dira txarrak, eta errealitate gordinagoa eta tristeagoa gerra zibila da.

Ikusi ditut argazkiak eta irudiak non Ukrainako herritar zibilak egurrezko metrailetan ariketa militarrek egiten ari ziren etsaiaren balizko erasoetatik defendatzeko. Hobe da milioika gastatzea bakerako, osasunerako, hezkuntzarako eta ingurunea zaintzeko!



Ukrainan gerra-danborrak entzuten dira. Ez dakit zer gertatuko den, baina uste dut negoziazio txar bat edo akordio txar bat gerra on bat baino hobea dela. Espero dut NATOk hau guztia berriz aztertzea eta Europako, Ameriketako eta Errusiako blokeen artean indar-pultsurik ez egotea.

### 4. Gerraren izugarrikeria

Gerra-estrategiei buruz ezer ulertu gabe, badakigu gaizki dabilenaren esaera hura: gaizki dabilenak oker bukatzen du. Putinek Ukrainan hasi duen gerra errealitate bidegabekoa eta diktatoriala da. Badakit denok nahi dugula bakea, baina, zoritxarrez, batzuetan izuari eta tiraniari aurre eginez defendatu behar da. Horrelako zerbait gertatzen ari da Ukrainan.

Ez dut bakearen ikuspegi erraz eta higuigarri bat eman nahi, baina ez dago benetako bakerik, baldin eta aurretik lau baldintza hauek, posible egiten duten bakarrak, betetzen ez badira: egia, justizia, askatasuna eta senidetasuna.

## BAKALEROAK

Joxe ERTZIBENGOA

Gure denbora-pasa erakargarriena sukaldeko leihotik Puntetara begira egotea zen, Ternuatik iristen ziren bakaleroak sirenotsak jotzen hasten zirenean eta bakailoz kargatuta zetozeela gaztigitzen zutenean. Beste zerbait egiten ari baginen, amak deitzen zigun eta ikuskizun hari so egitera gonbidatzen gintuen, eta guk, beste zeregin guztiak mahai gainean edo bazter batean utzita, hara joaten ginen ziztu bizian, leihora, bakaleroak portuan nola sartzen ziren ikustera. Une ederra zen, uste genuelako aitak bakailoren bat edo legatzaren bat ekarriko zuela etxera eta, orduan, otordu berezia izango genuela. Bai, horixe zen, gure eguneroko errutina zapuzten zuen ekintzetako bat. Gu, pozik, noski, eskolako lanabesak alde batean laga eta ezohikoa zen hartaz gozateko parada izaten genuelako.





Bestelako kontua da, ordea, egunotan jakin duguna eta Ternuako ur izoztuetan gertatu dena Villa de Vitaxo arrantzuntziarekin zein ur sakonetan hondoratu baita lanean ari zelarik. Izan ere, hiru bakarrik atera dira onik eta beste langile guztiak hil edo desagertu dira. Hildakoen artean hamar bat uretatik jaso dituzte baina beste guztiak –kasik segur– itsasoko amildegietan pausatu dira.

Bagenekien arrantzaleen lanbidea gogorra zela eta gaur egun ere oso arriskutsua dela eta sarri askotan izaten dugu honen froga, baita gure kostatik gertu ere, baina Ternuan gertatu denak babak sortu ditu lan horietan dabilzanen artean eta, esan gabe doa, lan horretan ez dabilzanen artean ere bai. Etxekoak erreguka ari dira bilatzen jarraitzeko, etxekoen gorpuk nahi dituztela eta merezi duten agurra egin lasai, bakean eta maitasunez. Hala ere, beldur naiz gogo horiek ez ote diren desira hutsetan geldituko, oso zaila baita ur izoztu haien hondoetan gorpurik aurkitzea borondaterik handiena jarri arren.



Guri, Sorgintxulokooi, halako poza sorrarazten zigunak Pasaiaiko portura sartzten ziren bakaleroek, Marin herrikoei tristezia, pena eta lastima baino ez die sorrarazi Villa de Vitaxok. Nolakoa den bizitza eta askoren bizimodua, ai ama!

Kontua da itsasoa ederra iruditzen zaigula –eta hala da– udaberriko arrastirietan eguzkia gordetzen hasten denean. Orduan, bikote askoren nahiak, asmoak eta egitasmoak gauzatzen omen dira, eta nik sinesten dut. Nor ez da liluratuta gelditu itsasoko horizontea erdi-gorri eta erdi-urdin ikusi duenean udaberriko egunetan? Edo aho-zabalik gelditu mendietako erpinetatik agertzen diren eguzki izpilik ikustean goiztirietan? Baina mendietako erpinetatik ere itzulipurdika jauzten dira mendizaleak akatsik txikiena egiten dutenean, Ternuako itsaso hondoetara jauzi diren bezala Villa de Vitaxoko marinelak. Aho zapore gazi-goza dago maiz, naturari behar beste erreparatzen ez diogunean. Beraz, erne! *Take care over something!*

Eta zuei, Maringo biztanleei, adore handia eta besarkada are handiagoa bakaleroak zer diren ongi dakien euskaldun honen aldetik. Izan bihotz!

## AFRIKAKO EKUMENISMOA

(Pedro Alberdi gogoan)

Pello ESNAL

Iazko uztailaren 18an hil zen, Irunen, anai Pedro Alberdi. Biharamunean jaso nuen arratsaldean, Jose Manuel Agirrezabalagak bidalita, Juan Carlos Orusek hiletarako egindako homilia, Jose Manuelek berak euskaratua.

Homilian, esaldi bat egin zitzaidan deigarria: «*Jesusek Jainkoa Errealitate edo Indarra bezala esperimintatzen du, eta Aita deitzen dio*». Karga handia sumatu nuen hitz haietan. Eta, esaldia abiapuntu hartuta, aldizkari honetarako zerbait idaztea erabaki nuen.

Baina berehala hasi zitzaidan Pedrori buruzko gaia ugaltzen. Ezin izango nuen dena idatzi bakarrean sartu. Bi alditan izan beharko zuen. Lehenengoa, *Ihintzaren* 110. alean plazaratu zen,

*Pedro Alberdi: Afrikan barrena* izenburuaz. Hauxe da bigarrena.

### Pedroren azken oroitzapena

Gogoan dut non eta noiz ikusi nuen Pedro azkenekoz. Donostian izan zen, Loiola auzoan, lesu parrokiaren, 2013ko otsailaren 9an, larunbat goizean.

Xavier Melloniren hitzaldi bat entzutera joan ginen hainbat eta hainbat gizon-emakume. Ondo bete genuen eliza. Eta tartean zen Pedro, baita beste bi anai salletar ere gutxienez. Pedro, elizaren erdialdean zen. Atzerago ziren anai salletarrak, eta ni hauen parean.

*Dios: teismo y no-dualidad* zen hitzaldiaren gaia. Edo, gauzak asko soilduz: Jainkoa, Ekialdeko

eta Mendebaldeko erlijioen ikuspegitik. Gai trinkoegia, lehendik zertxobait landu ez duenarentzat.

Hitzaldia amaitu zenean, galderen txanda etorri zen. Berehala zutitu zen Pedro. Eskuak burura eramane zituzten, biek batera, parean nituen salletarrek. Ez dut gogoan zer esan zuen Pedrok. Hasierako hitzak, bai: salletarra zela eta misiolari izana zela Afrikan. Ondorengoa, apenas aditu nion. Baina argi eta garbi adierazi zion Melloniri –sutsu ere bai– erabat konforme zegoela hitzaldian esan zuenarekin.

## Afrikarren Jainkoa eta ekumenismoa

Handik pixka batera, Afrikako misioen berri ondo dakien batekin hizketan ari nintzela, honek zer esango eta zein zaila egiten zaien afrikarrei Jainkoa aita dela sinestea. Berek ezagutzen duten aita, nonbait, ez izan horren ona eta bihozbera.

Geroxeago irakurri dut afrikar handi hark – Hiponako Agustinek– latinez idatzia: «*Si comprehendisti non est Deus*»; ulertu baduzu, ez da Jainkoa. Eta kito. Hortik aurrera, isiltzea onena. Isiltasunak bakarrik hitz egin dezake transzendentziaz, eta Jainkoaz. Eta isiltasun horretan egingo du bat, betiko, beste ekumenismoekin.

Beste ekumenismoen artean, budismoa izan daiteke Mendebaldekoontzat harrigarriena. Raimon Panikkarrek ezin egokiago eman zuen erlijio horren berri liburu batean. Edukia laburbilduz, *El silencio del Buddha* jarri zion izenburu. Azpitu-lua ere erantsi zion izenburuari: *Una introducción al ateísmo religioso*.

Kristautasunera etorrita, Golgotako isiltasuna irteten zaigu bidera. Isiltasun betea. Jesusen ezpainetan –amahizkuntzan esandako 22. salmoan– hitz, xuxurla eta oihu bihurtzen den isiltasuna: «*Eli, Eli, lema sabaktani?*». Lukasen ebanjelioak «*Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia*» itzultzen duen isiltasuna.

## Pedroekin bat

Jesusen isiltasun horren oihartzuna sumatzen dut Juan Carlos Orusen hitzetan –«*Jesusek Jainkoa Errealitate edo Indarra bezala esperimendatzen du, eta Aita deitzen dio*»–.

Egingo nuke Joan Bautista Sallekoak ere, 1719ko Ostiral Santu hartan, 22. salmoa bere amahizkuntzan xuxurlatuz itxi zituela begiak Ruanen: «*Mon Dieu, mon Dieu, pourquoi m'as-tu abandonné!*», «*Père, je remets mon esprit entre tes mains*».

Bertsolari gizarajoak, salmo bera itzultzera ausartuta, eta euskaraz ez ezik, bertsotan ere jarri zuen:

*Ai, ene Jainko, zergatik nauzu  
bakardade hontan utzi?*

*Deiadarka ere nere otoitzik  
ezin zugana iritsi.*

*Gau eta egun ari natzaizu  
deika oihu ta irrintzi,  
beldur naiz oso ez ote zaren  
gutaz betiko ahantzi.*

Berandu gogoratu zen Xabier Leteren sehaskanta hartaz:

*Haunditzen zeranean / ikusiko duzu / isilik  
egoteak / zenbat balio dun.*

Gaur, berriz, bertsolariak pozik kantatuko luke salmo osoa, anai Pedro eskusoinuarekin aldamean lagun. Baina gaur ere berandu dabil bertsolari gizarajoa, behin behar eta.



# AUSARTZEA ERABAKITZEN DUT

Aitor ZULAIKA

Zuk bezala, neronek ere bizi izan ditut une berezi batzuk nire bizitzan zehar. Bereziak diot ohikotik kanpo zeudela sentitu dudalako egunerokoa gertatuak izan badira ere. Gogoan ditut zimiterioan haizeak aurpegia ferekatu zidan hartakoa, hilotz hark esan zizkidanak, harreman batek azala kizkurtu zidanekoa kasu.

Jabetuta nago une haietan gertatutakoari garrantzia kendu izan diodala eta eguneroko martxarekin estali. Aitzitik, ohikotzat jo dudan zurrunbilo horretatik atera eta une horiei barruak eskatzen didan garrantzia emateko hautua egina dut; barne bizitzaren aldeko apustua, alegia.

Erabakitzen dut isiltzea entzun ahal izan ditzadan naizen gorputzaren deiadarrak; han-hemengo tentsio eta minak, digestio zenbaitetan korapilatsuak, bihotz taupadak... Bide batez, isiltasuna egiten dudanetan hobekiago bereizten ditut eguzki izpien argi-ilunak besteak beste.

Erabakitzen dut nire fede kristauari, uste eta sinesmenei esperientziaren baheaz begiratzea. Begirada horrek oinarriztat nuen zorua mugitzen du, tarteka desagertzeraino. Ausartzen jarraituz zoru berriak agertzen doazkit. Beranduago horiek ere lanbro huts zirela jakingo ote dut?

Erabakitzen dut nire bizitzari ematen diodan zentzuari arreta jartzea, hutsa haztamuka lehenbailehen betetzeko beharraz haratago, egiazko zentzuaren bila jartzea. Barren-barrenetik sentitzen dudan dei hori pertzibitzeko zentzu guztiak adi jartzea, egiazko bokazioaren bila jartzea finean.

Erabakitzen dut nire zati ukaezin den itzalean argi bila murgiltzea. Ni-ago egiten nauen bilaketa honetan gertuen ditudanak dira bidaide pribilegiatu. Ingurukoek eskaintzen didaten ispiluez baliatuz, besteak beste, naizen hori era osoagoan ezagutzea hautatzen dut sortzen dituen minak min.

Erabakitzen dut haizearen, euriaren, eguzkiaren zein beste inoren aitzakiari uko egin eta nire belaontziaren ardura hartzea. Nireak diren

arden erantzule izatea eta nireak ez direnak bere horretan uztea.

“Erabakitzen dut” diot, izan ere, asmo hauek ez baitira lerro hauek idazten ditudanean esaten ditudan zin-hitzak edo behin betiko hartutako erabakiak. Erabaki hauek testu hau irakurtzen ari zaren une honetan bertan ere unean uneko erronken aurrean deklinatzea erabakitzen dut.



Susmatzen hasia nago lan hauetan behin betiko balizko lorpenak baino gehiago bidea bera litekeela garaipen. Barrura begira zintzo jarri zarenetan jakin izan duzu topatutako denak ez dituzula gustuko izan batetik, eta atzera bueltarik ez duen bide bat hasi duzula bestetik. Izan ere, bide horretan abiatuta ikusi eta ikasi duzunaren ondoren ezin izan baituzu lehengoa izatera itzuli.

Hau guztia modu disziplinatuan egitearen garrantziaz jabetzen joan naiz. Honek ere, bizitzako gainerako eremuek bezala, entrenamendua eskatzen du. Orain arte niretzat topatu dudan lanabes inklusibo eta baliagarrienari *zazen* edo eseritako meditazio esaten zaio. Eguneroko ariketa horrek, bestelako irakurketa eta dinamikekin batera, portutik aldenduz itsasoan barrena narama.

Bide honetan bizi ditudanak idatziz jasotzea bati behintzat baliagarri zaio eta horregatik bakarrik merezi du. Baina testu honek zure aurrean biluzte hutsaz haratago zugar oihartzunen bat sorraraztea ere badu helburu. Edonola, nire esku baldintzak sortzea baino ez dago; horrainokoak bai baina hortik aurrerakoak ez dagozkit ez niri.

Bidaide zaitudan hori, ongi izan!





kasualitatetan ez dut sinisten. Segurki bi historiak, letra larriz eta xehez, elkarrekin lotuta daude. Ez dut froga objektiborik, ez dut ikerketa egiteko astirik... baina lepoa jarriko nuke udalbatzak diru premia zuela lur sailen eta gaztainondoen desafektazioa egin behar izateko. Izan ere, garai haietan gerrek udalerrietako ekonomiari eragiten zioten, harik eta propietate publikoak saldu behar izan arte. Gauza bera gertatzen zitzairen izapidezko bizilagunak zirenei, udalerriek ez baitzuten aurrekonturik izaten eta diru kargak beraien artean ordaintzen zituzten. Eta baldintza hori bete behar zenuen, *vezinoa* izatea alegia, erabakien onuraduna izateko.

Horretaz gain, deigarria egiten zaidan bigarren kontua dokumentuaren testuinguru sozio-linguistikoa da. Autoen zatian hamar kide aipatzen dira, eta horietatik hiruk sinatzen badakite, besterik ez. Pentsatu nahi dut, gehienek sinatzen ez bazekiten, irakurtzen ere ez zutela jakingo. Eta gazteleraz are gutxiago. Hau da, hizkuntza eta adierazpen modua arrotza izanagatik ere, salerosketa ez zuten eten. Adostu beharrekoa hitzez eta euskaraz egingo zuten, hori zen garrantzitsuena, gero paperak etorriko ziren. Esaneko jendea izan behar ziren, fidatzekoak. Denon artean bat etorri erabakian, eta gero hiruk sinatu. Fidatzekoak, fidagarriak eta fidatuak. Horren giltzarria eskribaua bera zen, noski.

Ukronia ariketa sinplea egin dezagun. Argazki horren negatiboa aztertuko dugu, eta gaurko egunean kokatuko gara. Pentsa *urlia sandia eta berendia* etxe bat erostera doazela, denak erdal elebakarrak, eta notario jauna elebiduna, euskaraz eta gazteleraz dakien bakarra bera da. Dokumentazio guztia, ordainagiriak eta gainerako tramiteak euskaraz egin behar halabeharrez. Eta gainera, ez saltzaileak, ez erosleak, ez daki irakurtzen, ezta sinatzen ere. Fidatuko al lirateke? Baldintza horietan erosiko al lukete? Eta saldu? Ezezkoan nago. Arazoaren mamia da gaur ez dagoela norekin fidatu, besterik ez. Horretaz gain, gaur koldarragoak gara, ez dugu urrats bat itsumustuan emango ez badugu harlauza bere tokian jarrita ikusten. Ariketa inozo honi erantsi diezaiozun testuinguru politiko desegokia, gerra kasu. Ez dakit zein etsai atarian dugula ez ginateke ausartuko, ziur. IPC delakoa bi hamarren igotzen bada dardarka gaude, nola erosiko dugu etxe bat

kanoien danbatekoak entzuten baditugu? Gu halakoak gara eta izango direnak ez dira hobe izango.

Gauzak horrela, gatozen gure eguneroko bordara, barka, eskolara. Irakaskuntza tradizionalan Historia ofiziala besterik ez dugu irakatsi. Berrikuntzak heldu ziren, SEINekin *inputean* Historiaren eskema nagusia eman, eta *outputean*, soluzioetan bereziki, historiaren zirrikietara hurbildu izan gara. Gaur, badirudi ITB bide beretik doala. Baina arrisku bat dago, hots, Historiarekin hasi, historiarekin jarraitu eta istorio hutsaletan bukatu. Erne! Izango ahal da gure aurrekoek une zailetan erakutsi ziguten ausardia eta adorea ezagutzeko!

(... ..)

Eta Historiak deitzen duen Independentzia Gerra bitartean, borda egin zuten. 1814ko abuztuan etxeko primua ezkondu zen, eta ezkonkapitulazioak egin zituenez, deskribatu egiten du aipaturiko borda. Ekonomia mistoa zuten, askok bezala, nekazariak eta abeltzainak ez ezik, aizkoragileak ere baziren.

Zer uste duzue? Ezkongaietan gauzak lasaiago zeudela aurreko urtetan baino? Ez dakit ba! 1813ko abuztuaren 31n Historiak deitzen dituen *aliatuek*, ingelesek eta portugaldarrek, Donostia erre eta arpilatu zuten. Valençayko Ituna abenduan sinatu zen, eta horri esker Espainian bukatua zen Independentzia gerra. Fernando VII.a hurrengo urteko martxoan iritsi zen Espainiara. Hala ere, apirilean *Pertsiarren Manifestua* sinatu zuen; hortaz, deuseztatu egin zuen Cadizeko Konstituzioa, eta berriz ere, han ez zen giro. Ur-lasterren ibai zabal hartan ez zuten beste ertza ikusiko... baina gurutzatzen saiatu ziren.

Edari fina jaki gozoa  
Dugu egunero bazka  
Etxea eta kotxea izanik  
Deritzogu arrakasta  
Ilargiraino jarrita dugu  
Banderatxo eta masta  
Baina gaurkoan galduta dugu  
Asabek zeukaten kasta.

(Doinua: *Ari naizela ari naizela*)

# NIRE TALAIATIK

Juan Luis URMENETA

## Martxoak 12 – Putin, nola ez

Askoz gehiagotan ikusten dugu Putin telebistetan bere kohorteak Ukrainako lurretara bidali zituenetik. Egunotan ere irakurri berri dut Andoaingo Udalak argitaratu zuen *Martin Ugalde* liburua haren mendeurrenean. Anjel Lertxundik idatzia da eta 72. orrialdean Errusiako jauntxoa gogoratu didan testua aurkitu dut: *Zibilizazioaren ispilu izan ordez zibilizatu maskara batekin gaizkia praktikatzen duen gizakiaz ari naiz, Leonardo Sciasciak “gaizkiaren burokrata” deitzen duen giza klaseaz; pertsona ustez jantzi batek mendeku gosez bururatutako giza akzioaz...* Lertxundik *Euskaldunon Egunkariako* arduradunak epaitu zituen Del Olmo epaileari egozten dio, nik baita Putini ere.



Zalantzan dut, ordea, zibilizatu maskararik duenik. Kameran aurreko eszenatokira agertzen denean Erdi Aroko jauntxo itxura hartu diot nik. Gorterekin batzuetan, bakarrik bestetan. Gortea beti bera bezain hieratikoa, beragandik urrun atzean nahiz aurrean, bera bezain serio, haren esaneko –badaezpada seguruenik–. Eta kanpoko

agintariren batekin denean, metro batzuetara dauden besaulkietan hurbileko agintaria bada, sei metroko mahai valentziarra tartean dutela konpromisozko elkarrizketa bada. Baina badu maskara, lotsagabe maskaradun dela erakusten duena eta tripako min galantak sorrarazten dituen. Hori da, adibidez, Pazkoa Ortodoxoa ospatzera joan denean erabili duena.

Ba, bai. Putin ez da Erdi Arotik pasa. Garbi erakutsi baitu ez dakiela arazoak konpontzen indarra erabiliz ez bada. Etxekoak isildu egiten ditu hitz egiteko eskua altxatzen duena kartzelara bidaliz eta auzokoei gerra egitera bidaltzen die ejertzittoa terreno zatitxo bat kendu eta bereari gehitzeko.

Ea psikoanalista batek sendatzen duen. Ukraina *desnazifikatzera* bidali omen ditu kohorteak. Proiekzio hutsa da hori esatea.

## Martxoak 16 – Zakurren bidetik

*Behelainotegi* inguruan bide asko dago oinez paseatzen ibiltzeko, denak lauak, denak gogorak oinetarako. *Ibilbide osasuntsuak* diote karteletan. Gehienak partekatuak dira ibiltarientzat, batzuk txirringulariekin, beste batzuk zakurrekin. Lehenak arriskutsuak atzetik etortzen bazaizkie oinezkoei, bigarrenak bideetan uzten joaten diren *lokatz ingelesagatik* –nire lagun batek horrela deitzen zituen kaka mokordoak–. Jakina badira zakur-jabe arduratsuak sakeletik poltsatxoa atera eta berehala kentzen dutena baina, oraindik, zakur-jabe burugabe asko dagoela uste dut.

Bi zakur-jabeen atzetik nindoan behin, bakoitza bere zakurrarekin. Hurbiltzen ari nintzaiela zakurretako batek berea egitera joan zen bide ondoko belardira. Jabea itzuli, plastikozko poltsa atera eta lagunari bota zion –ni ikustean agian, gaizki pentsatuz–: *Ordaindu egin beharko ligukete bazterrak ongarriztatzeagatik*. Minutu batzuetarako meditazioa eman zidan hark esandakoak eta ondorioztatu nuen baietz, baina baldintza batekin: zakurrek ongarrri gisa utzitakoa jabeek zabaldu beharko luketela zelaietan euren oinetakoekin zapalduz.



### Martxoak 26 – Keinuzaleen bidetik

Ikuskizun hutsa gara sakelako telefonoa haizea hartzera ateratzen dugunean kalean. Harridura sorrarazten dugu hitz egiten ari garen bitartean egiten ditugun mugimendu eta keinuengatik baina harridura handiago eragiten dugu norbaiten aurrean ari garenean, izan ere gehienetan entzulea gorra balitz bezala hitz egiten baitugu.

## NIRE ESPERIENTZIA SAN LUIS LA SALLEN

Indira DIEZ HERTART

San Luis La Salle DONOSTIA – DBH 4

**D**enbora oso azkar pasatu da, egia esan, uste nuena baino azkarrago. Txikia nintzenean, DBH4 mailara iristeko denbora asko pasatu behar zela pentsatzen nuen. Oso urruti zegoen gauza bat bezala ikusten nuen, eta orain, DBH4 mailan nago.

Nire San Luis La Salleko bidea HH-n hasi zen, 3-4 urte nituenean. Uste dut une hartan munduko gauza sinpleenak egiten nekiela (ibili, hitz egin pixka bat...), eta orain, DBH4 maila amaitzen ari naiz.

Ez naiz oso ondo gogoratzen nolakoa izan zen nire lehenengo eguna eskola honetan, baina gurasoei galdetu eta gero, esan didate eskolan hasteko gogo handia nuela, eta irribarre handi batekin joan nintzela. Nahiz eta oso gogoz joan, oso urduri egongo nintzen momentu horretan seguraski. Inoiz joan ez nintzen leku berri batera nindoan, pertsonak guztiz berriak ziren, ez nuen inor ezagutzen, ez nekien zertarako nindoan leku horretara... Dena berria zen!

Eskolatik, oso pozik atera nintzen lehen egunean, pertsonak oso jatorrak ziren, orain pertsona berri haiei lagunak deitzen diet. 13 urte hauetan, lagunen artean hainbat gatazka gertatu dira, baina beti konpondu ditugu. Eguneroko rozeak... baina azkenean, gauza horiek biziki-detzaren gauzak dira.

Irakasle asko eta desberdinak ezagutu ditut baita ere: HH-ko irakasleak, LH-koak eta DBH-ko

Penaz gelditu nintzen behin zakurren ibilbide horietako betean nenbilela. Niregana zetorren gizon bat niri lagun-keinuak egiten ari zitzaidala iruditu zitzaidanean. Ez nuen ezagutu baina nik baino bista hobea izango zuela pentsatu nuen eta nor nintzen urrutitik konturatu zela. Berehala ohartu nintzen hitz egiten zetorkidala eta entzun nion –entzumen ona baitaukak– jatetxe batean bazkaltzeko ordua eskatzen ari zitzaidala, hark ordainduko zuela eta. Ez nion erantzun oraindik nor zen ez bainuen ongi bereizten, nahiz eta ezaguna nuela uste. Nigandik hurbil zegoenean konturatu nintzen telefonoz hitz egiten zetorrela, *eskurik gabe* modura eta ez nuela inoiz ikusi. *Eskerrak keinuka hasi ez natzaion eta bazkaltzeko gonbidapena onartu ez diodan* pentsatu nuen nire artean ibiltari keinukari hitzun harekin farola batekin bezala gurutzatu nintzenean.

irakasleak. Egia esan, uste dut irakasle hoberenak eskola honetan daudela. Egia da batzuetan klasean irakasleekin bronkak izan ditugula, baina, beti guri laguntzeko izan dira.

HHn hasi ginenetik DBH4-raino, jende asko etorri da eta jende asko joan da. Jende gehien etorri zen urtea LH1 mailan izan zen. 5-6 pertsona berri etorri ziren.

DBHra pasatu nintzenean, oso urduri nengoen. Irakasle berriak, ikasgai berriak, ordutegi berria... Gainera, ni baino urte bat gehiago zuten klasekoek. Nire klasekoei eta niri beldurra ematen saiatzen ziren esanez DBH oso zaila zela eta asko ikasi behar zela. Gauza horiek entzun eta gero, ez nuen nahi DBH hasi. Gainera, 4 urte zirela ikusi nuen, eta oso luzeak egingo zitzaizkidala pentsatzen nuen.

Orain, nire San Luis La Salleko bidea ikusten dut, eta egia esan, oso azkar pasatu zait. Izugarritzko pena ematen dit pentsatzea nire betiko klase-kide gehienak ez ditudala berriro ikusiko.

Klaseko barre horiei, taldeetan egin beharreko proiektuei, txangoei... agur esateko momentua iristen hasi da. Egia esan, ez dut nahi ekainak 22 iristea, agur esateko momentuagatik.

Espereintzia oso polita izan da nire San Luis La Salleko bidea, eta oroitzapen oso berezi eta ederra eramango dut hemendik.

## JOSTAILU KATALOGOETAN SEXISMOA NAGUSI

Miren URIZAR

La Salle EIBAR – Batx 1

*Jaun agurgarri hori:*

*Gutun honen bidez nire keza adierazi nahi dizut; zure jostailu-enpresak zabaldutako katalogo sexista dela eta. Izan ere, gaur bertan jasotako ale bat aztertu ondoren, edukia guztiz desegokia iruditu zait. Bertan, ikaragarriko genero-bereizketa egiten duzu, eta irudi hori emanez, neska-mutilei inposatutako rolak nabarmentzen dira.*

*Lehenik eta behin, nire desadostasunaren arrazoi nagusiak azalduko dizkizut. XX9. mendean gaude jada, eta gizartea, gure pentsatzeko moduarekin batera, arqi dago asko aldatu dela. Orain, pertsonengan gehiago pentsatzen dugu, hau da, norbanako guztien onarpenean. Besteengandik bereizten gaituzten makina bat ezagurri ditugu, eta horregatik tamalgarria da gizarteak gure nortasuna erabakitzea. Gai honek zuen enpresako jostailuekin harreman handia dauka, haietan desberdintasuna sustatzen baita. Hori gutxi balitz ere, jostailuak haur txikiei zuzendutako produktuak dira. Adin horrekin heztear daude oraindik, eta entzuten eta ikusten duten gauzetatik ikasten dute. Ondorioz, jostailuek ematen duten informazioa jaso eta beren balioak eta jarrerak aldatu egiten dira.*

*Hari honetatik tira egingez, gazteek beren ikasketak erabakitzeke orduan, neska ala mutila izateak eragiten duela uste dut. Etorkizuneko lana aukeratzean, neskek osasun eta zaintza arloei lotutako ikasketak egiten dituzte gehienbat. Aitzitik, mutilek zientzia teknologikoetan sentitzen dira erosoan. Erabaki librea dela diote, baina ez al daude gizarteak baldintzatuta? Gaztetxo garenean oparitzen dizkiguten jostailuak ez ezik, egunerokoan ikus daitezkeen mezu inplizituek ere baldintzatzen dizkigute erabaki horiek. Hau kontuan hartuta, ukaezina da sexistek daukaten eragina.*

*Horrez gain, esan beharra dago jostailu gehienak, izatez, ez direla sexistak, haiei ematen zaien erabilera baizik. Panpin bat saltzeari ongi deritzot, baina katalogoan agertzen den bakoitzean neska batek darama, honek irudi sexista ematen du. Berdin gertatzen da auto eta eraikitzeke diren jostailuekin. Modu honetan amaitzen dira genero-rolak betikotzen.*

*Esandako guztia kontuan hartuta, espero dut zuen enpresan saltzen eta sustatzen duzuenari buruzko kontzientzia hartu izana. Azkenik, gutun honi amaiera emateko, jostailu-katalogoak aldatzea eskatzen dizut, horrelako aldaketa txikiak eginda, eragin positibo handiak ekar ditzakezulako.*

*Adeitasunez.*

## TELEBISTA AURREAN ORDU TXIKIAK ARTE

Jon ERRASTI

La Salle EIBAR – Batx 2



**O**rain dela urte gutxi arte, gure ordu libreak telebista aurrean pasatu ez ezik, beste zenbait gauza egiteko eta hainbat pertsonekin hitz egiteko ere erabiltzen genituen. Azken boladan, aldiz, Espainiako herritarrok telebista aurrean pasatzen dugun gehiegizko ordu kopuruak hautsak harrotu ditu. Nire uste apalean, lotsagarria bezain tristea da. Ez al da entretenigarriagoa familiarekin nahiz lagunekin denbora pasatzea, gailu txatxu baten aurrean denbora alferrik ematea baino?



Hasteko esango dut, Espainiako herritarrok, Europa mailan, ordu txikiak arte telebista aurrean gelditzen garen bakarrenetarikoak garela. Europar batasunak, hots, gaiari buruzko agintariek diotenez, 2020. urtean argitaraturiko datuen arabera espainiarrok gure bizitzako 6 urte pasatzen ditugu kaxa-forma duen deabru honen aurrean. Hau onartezina da! Ez al gara konturatzen telebistak ez digula bizitza poztan, baizik eta, itzuliko ez diren momentuak lapurtzen dizkigula?

Egun hauetan, arazoa pil-pilean egon da, pertsona adina iritzi agertuz; badakigu, *zenbat buru hainbat aburu*. Askoren ustez, kalterik eragin ez dezakeen asmakizun bati buruz ari gara hizketan. Haatik, datuek aurkakoa diote. Azken urteetan, berandu arte telebista ikusten gelditzen diren pertsonak egunean zehar neka-neka eginik ibiltzen dira, depresio-sintomak agertzen zaizkielarik.

Aitzitik, modu egokian eta neurrian erabiliz, onuragarria izatera iritsi daiteke. Honen isla ditugu Frantzia, Alemania eta Finlandia, non audientzia handieneko tarteak 20:00-23:00 den. Horren harira, gure herrialdean ordu batetik aurrera telebista ikustea debekatzea aukera paregabea litzatekeelakoan nago. Badakit pixka bat erradikala izan daitekeela; alabaina, esaera zaharrak dioten bezala, *ogj gogorrari, hagin zorrotz*.

Arestian esandakoa laburbilduz, zalantzarik gabe telebista aurrean egoten garen ordu kopurua kezkarria dela esan dezakegu. Hau horrela izanik ere, arazo honi zirt edo zart egin beharko genioke, lan makala ez bada ere. Hori dela eta, bakoitzaren etxean hasi behar da aldakuntza. Eta zeuk zer egin dezakezu gizartearen eta zure familiaren osasunaren alde?

## Argi urratzea

Graxi SOLORZANO

Goiz bakoitz oparia  
Begiak idekitzean argia  
Gauari egunak eman dio aldia  
Hau ez bada egiazko miraria!

Iluna sartzeak dakar isiltasuna  
Hunek sortzeko premiazko atsedena  
Ondotik gauak besarkatuz eguna  
Emanen baitu agian hoberena

Gaua ez da bere baitan hesten  
Egunsentiari baizik idekitzen  
Bakarrik nere burua lehen  
Edo urkoaren bidean itxaroten?

Ezohiko hotsak entzun  
Aurpegi arrotzak aurkitu  
Gure "buru-estalgia" kendu  
Usaia berekoiez erauntzi

Egunaren gakoa baita argia piztea  
Gure urratsen ibilbidean laguntzea  
Erortzean xutitu eta aitzinatzea  
Hitz batez erraiteko maitatzea

Tokia utzi eta eman ondokoari  
Gure arreta osoa eskaini bertzeari  
Hitzak eta asmoak, bere iritzi berezi  
Preziatu, baitira elgarrentzat bizi-argi

Ezberdinaren onartzean  
Errespetuz begiratzean  
Harreman sanao sustatzean  
Zinez sinesten bagindu bakean?

## XABIER LETE, AZKEN GORAZARREA

Bernardo ATXAGA

Hirurogeiko hamarkadaren bukaeran ikusi nuen Xabier Lete aurreneko aldiz, herri txiki bateko plazattoan, taulatu batera igota. Ile-kalpar harro orraztu ezin batek koroatzen zuen haren burua, eta *stravaganza* hark harritu egin zuen garai hartako entzuleria xumea. “Euskalduna al da hau? Itxura horrekin?”, esan zuen norbaitek ahapeka. Luze gabe, Xabier Letek kanta baten gorabehera azaltzeari ekin zionean, txantxaz, hitz erdika, zalantza guztiak uxa egin zuten plazattotik. “Gu bezalakoxe euskalduna, bai, baina zorrotzagoa”, adierazi zuen beste entzule batek, lehenengoari erantzunez. Egia. Hiztun ona zen Xabier Lete, mihi zorrotzekoa. Erne ibili behar haren inguruan, egia *tiratzen* baitzuen leuntasun edota hinkihankarik gabe, bai eguneroko bizitzan eta bai poemetan edota artikuluetan. Alde horretatik, ez bakarrik bere ile-kalpar harro orraztu ezinagatik, otsoa ematen zuen batzuetan. Halaxe, harik eta gaitza etorri zitzaion arte.

Lagun batek, Jesus Mari Eizmendik, jakinarazi zidan 1980ko hamarkadaren hasieran: Xabier Lete ospitalean zegoela, eta ea ez nion bisitarik egin behar. Joan nintzen, eta azken solairuko gela bakandu batean ikusi nuen ohe batean etzanda. Harritu egin zen apur bat ni han ikusita, ez baikenuen aparteko tratabiderik. Ezin izan ere, bera Gipuzkoan mugitzen zela eta ni Bilbon. “Jateko gogorik batere ez zeukaat”, aitortu zidan, alde batera etsipenez, bestera amorrazioz. Geroxeago, igogailuan, medikuari galdetu nion nola ikusten zuen. Medikuek ez zidan erantzun zuzenik eman, baina, haren bisaiak adierazita, ezer onik ez zela sumatu nuen.


Aurrerantzean, hurrengo urteetan, han eta hemen gertatu ginen elkarrekin, eta bikoiztuta zegoelako irudipena izaten nuen, bi *daimon* zebiltzala haren baitan: batek otsoaren ahots zakarra zuen, lehengo berbera, betikoa; besteak, berriak, ahots sakonagoa, isilagoa, eztiagoa. Irudipena haren *anaia* batzuek indartzen zidaten, eta batez ere Joxan Goikoetxea musikariak. Bai, bi ahots zituen, baita gizartean hartu behar zuen lekuari buruzko gogoetetan ere. Umberto Eco entsegu batean planteatutako dilema — *apocalittici o integrati*— Xabier Leterena ere bazen. Nola jokatu? Sistemaren barruan jardun, ala desertura jo predikatzerara? Orduko abertzale arin batzuek —haiek beti ozen, oihuka eta txistuka kontzertuetan— ez zioten hautua samurtu, eta nire ustea da dilemaren erdian gelditu zela, hala nola zuhaitz-adar hautsi bat bi ur-korronteren artean.

2008. urtean azken poesia liburua argitaratu zuen, *Egunsentiaren esku izoztuak*. Haren orrialdeetan bigarren ahotsa azaltzen zen soilik. Heriotza hurbil zegoen. Lortuko ote zuen dramaren gainetik jauzi egitea? Ezetz pentsatu nuen Iruñeko Planetarioan poesia errezitala eskaini zuen egunean, zeinetan, entzuleek erakusten zioten begirunea sentituz, nekez eutsi baitzuen malkoei. Baina bazegoen artean pozerako zirrikiturik, ez zen dena ilun. Ekitaldiaren amaieran Pamiela argitaletxeko lagunak harekin bildu ginenean eta *Egunsentiaren esku izoztuak* goraiatzaren hasi —“Esate baterako, hire poema hori, Bianditz mendiarena,

aparta duk, ez duk laurogei urtean ahaztuko”—, otsoa berpiztu zen haren barruan —“Zer esaten duzue, zuri faltsuak!”—, eta barrez jarri gintuen.

Testu guztiak kristalizazio baten ondorio ohi dira. Esan nahi baita, gogoan mugitzen diren oroitzapen edota pentsamendu izpiak gauzatu egiten direla noizbait, eta hitz bihurtu. Halaxe, irakurleari bistakoa izango zaionez, Xabier Leteri eskainitako azken gorazarre honetan.

(Argazkia: Mitxelena DV)





Nork esan behar zigun guri, Lete,  
trumoia bezala ibiltzen hintzen hori,  
dena bizar kizkur eta ile kalpar,  
eta oihuka, Txano Gorritxori deika  
benetako Otsoa uh uh uh uh uh  
hik herorrek ematen huela...

Nork esan behar zigun hari bat,  
urrezko hari bat zela hire muin,  
armiarma sareetako bezain mehe,  
eta hari horrekin, urregin batek bezala,  
urreginaren esku eta gai aldi berean,  
hire heriotzarako azken 5.000 egunak  
josi behar hituela poliki-poliki  
harik eta dena amaitu arte.

Lore artean ikusi hindugun etzanda.

*In manos tuas, Domine.*

Lore artean hengoan etzanda,  
leiho handiko gelatxo batean,  
eta inguruan adiskideak,  
batzuetan urduri barrezka.  
Gizon gazte bat, xuxurlaka,  
hire liburu bat irakurtzen ari zuan  
otoitzean bezala.  
Neska batek, hirekin behin  
Alkizako errepidean egokitu  
eta Heriotzaz hitz egin zuenak,  
hala nola baserritar batek  
beste baserritar batekin  
eguraldiaz edo azokan ikusitakoaz;  
neska hark, Lete, negar egiten zian hiregatik,  
eta beragatik, eta denongatik.  
Joan egin ninduan  
jende artetik kale bakartira:  
neguko arrats isilean  
uhuriak sentitu nizkian,  
uhurika ari zuan otso bat  
uh uh uh uh mendian.

Joan ninduan mendira,  
sartu ninduan basora,  
Otsoa hizketan hasi zuan:  
“Zertan da Xabier Lete lehena?”  
Lore artean etzanda hengoela  
esan nioan, 5.000 egunen buruan  
bake-bakean ematen huela.  
Eta urregina ere aipatu nian,

5.000 egun haien urreaz  
argitasun bat sortu zela tanatorioan.  
“Jenderik izan al du?”  
galdetu zian uh uh uh Otsoak.  
“Aretoa beteta zegoan”, erantzun nioan.  
“Inor mozkortu al da?”, berak.  
Eta ezezkoa eman nionean:  
“Xabier Lete Lehenak ez dik beraz  
ardotan gastatu nahi izan!”  
Eta jarraitu zian Otsoak, hasperen eginez:  
“Errebindikatu al du inork ezer?  
Baliatu al da inor aukeraz,  
demagun, euskararen ofizialtasuna  
Obanosen edo Zangozan eskatzeko?”  
Zer esan ez nekiela gelditu ninduan.  
Otsoak uh uh uh barre algara egin zian.  
“Zein haiz hi, ordea?, galdetu nioan.  
Eta berak, “Ni? Xabier Lete Bigarrena!”

Astebete geroago han ninduan osteran,  
mendian, basoan, Otsoarekin.  
Esan nahi baita Xabier Lete Bigarrenarekin.  
Hire heriotzaren inguruko mezak,  
hitzaldiak, artikuluak aipatu nizkioan,  
eta hire zenbat kanta jarri zituzten irratian.  
Bera ere kantari hasi zuan orduan,  
trumoi ahotsez, dena bizar eta ile kalpar:  
“Etxetikan lanera noa nahiko mantso,  
Realak cuatro uno galdu zuen atzo”.  
“Ba, jakin ezak –moztu nioan–  
Realaren partiduan minutuko isilaldia  
egin zutela Xabier Lete Lehenaren omenez.”  
Eta esan zian berak: “Ba, jakin izatera,  
Uh uh uh uh, irabazle jarriko nian,  
Realak cuatro uno irabazi zuen atzo,  
eta hor konpon neurriak eta neurri-ondoak”.  
Konturatu ninduan orduan Otsoa eta hi,  
5.000 egun urrezko hariz jositakoa,  
bat zinetela, biok bat, auskalo nola.

*In manos tuas, Domine,*  
zure eskuetan, Jauna...  
Mikel Laboa gogoan hartu  
eta hire azken liburuko  
187. orrialdeko poman  
*in manos tuas, Domine* irakurtzean,  
hunkitu egin hintzen, Lete.

Eta ulertzen haugu,  
nola ez haugu ba ulertuko?  
Gu bezalakoak, herri ttikietako umeak,  
idiak beren gurdiekin kale nagusitik  
pasatzen ziren garaian jaioak,  
-behiei begira egoten ginenak  
hiltegiara zeramatzatenean-  
soka batez lotuta kale nagusi beretik,  
eta haiek harri pinporrean utzitako pustiletan  
txorientzako zepoak jartzen genituenak,  
guk, gu bezalakoek, herri ttikietako umeek,  
bihotzean itsatsita zeramaagu Leku Berezi hura,  
Herriaren gaikaldeko etxe nagusia,  
harrizko murru sendoek babesten zutena,  
non nahasten ziren intsentsuaren eta ezkoaren  
usainak, eta batzuetan baita arrosarena ere;  
non ontziak urrezkoak ziren, non hizkuntza  
Virgiliorenaren berbera zen, *in manos tuas, Domine...*  
Nola ez haugu ba ulertuko?

Herriaren gaikaldeko Etxe Berezian nahi izan huen  
hire 5.000 egunetako azken jostura egin,  
eta zer poza izango zen hiretzat,  
egia bada hik herorrek  
Xabier Lete Lehen horrek  
sinisten huena,  
zer poza izango zen hiretzat  
dena lorez inguratua egotea,  
eta soinu-jolea doi-doi jotzen,  
eta urrezko hari bat airean:  
“Izotz-ondoko eguzki,  
Neguaren barre...”  
Ulertzen haugu. Nola ez, ba?  
Baina hik ere ulertu beharko duk,  
eta ez bakarrik neguan ari naizelako,  
Otsoaren alde jartzea,  
eta egloga bat bezala hasi den gorazarre hau,  
“Zeinek esan behar zigun guri...”,  
demanda bat bezala bukatzea:  
Gure artean bizi behar baduk  
ez hadi izan bakarrik  
Xabier Lete Lehen;  
egunak zeuzkaagu aurrean,  
100, 500 edo 20.000,  
denak bizi beharrekoak,  
eta bizitzeko uh uh uh uh  
Otsoa ere behar diagu;  
behar diagu Xabier Lete Bigarrena,  
Lehenarekin bat zena, auskalo nola.

B.A.



# BERNARDO ATXAGA KOLEGIOAN

Inazio ACHA


**A**spalditik hitz egina genuen geure artean: egunen batean Bernardo Atxaga ekarri behar dugu Ikastetxera ikasleei hitz egin diezaien. Baina alde batetik beldur pixka bat ere ematen zigun, ze hain izen handia duen idazle batek agenda nahiko betea izaten du eta ezezkoa jasotzeko beldurra hor zegoen. Baina, bestalde, nik banekien Eibarko Aldatze ikastetxean hitz egiten egona zela (ikastetxe horretan idazlearen amak ikasi zuen 30eko hamarkadan). *Amaren ikastetxean hitz egiten izan bada, bere ikastetxera ere etorriko duk, ba esaten nuen neure artean.*

Bestalde aurten 75 urte bete ditu Donostiako La Sallek. Tamalez, gauza bat dela, bestea dela, eta pandemia tarteko, ez da ospakizun handirik antolatu. Motibo eta aitzakia polita izan zitekeen urtebetetze hori Atxagari gonbitea egiteko. Eta halaxe egin zitaion. Erantzuna berehalakoa izan zen: *Aspalditik utzia nago horrelako ekitaldiak egiteari, baina La Sallerekin salbuespena egingo dut, La Salle garrantzizkoa izan baita niretzat.* Erantzunak ez ninduen ezertxo ere harritu, Atxagak ez baitu sekula ezkutatu La Salleko ikasle-ohia denik, bestela baizik, esango nuke harrotasun-puntutxo bat ere erakutsi duela zirkunstantzia hori aipatu duen bakoitzean.

Horrela bada, apirilaren 5ean, Aste Santuko oporrak hartu aurreko asteartean, Ikastetxean hartu genuen eguerdian. Ikastetxeko zenbait leku (HHko eraikina, liburutegia, eliza izandakoa, goiko terraza...) ikusi ondoren, 5. pisuko bulegoak bisitatu genituen eta hango jendea agurtu ondoren kafetxo bat hartu genuen Ikastetxeko aretora jaitsi baino lehen.

Aretoan Batxilergoko 2. mailako ikasleak, Ikastetxeko zenbait irakasle eta beste lagun batzuk zeuden Atxagari entzuteko prest. Aretoan bertan bi graffiti handi zeuden ikusgai: 2020ko abenduan Nextor Otaño graffitigileak egindako Bernardo Atxagaren bi begiak. Izan ere, Nextor (Espainiako graffiti txapelduna) eta haren aita La Sallen izan ziren Euskararen Egunaren inguruan ikasleen

aurrean erakustaldi bat egiten. Zer margotuko La Sallerekin eta euskararekin zerikusia izango zuena, eta beraiei otu zitzaion Bernardoren argazki bat eredu hartuta haren bi begiak zuri-beltzean marraztea. Eta hantxe zeuden, aretoan bertan geunden guztion zelatari eta begirale.



Hizlaria aurkeztu ondoren (haren jaioterria, ibilbidea, garaiko La Salle, ikasle garaiko argazki batzuk...) ia ordu eta erdiko hitzaldia eta elkarrizketari ekin zitaion.

Tamalez ez genuen hitzaldiaren grabaziorik egin, gauza txit interesgarriak esan baitzizkigun. Entzuleriari hasiera-hasieratik adierazi zion Bernardok bere asmoa: zenbait etsenplu azaltzea kolegioan pasatako urteetan oinarriz, eta etsenplu horien inguruan gogoeta egitea.

Adibidez, La Salle oso garrantzitsua izan dela bere ibilbidean azpimarratu ondoren, kontatu zigun nola urte haietako literaturako irakasleak beronek egindako erredakzioak aurkezten zizkien ikasleei, gero ikasleek beren erredakzioa egin zezaten irakaslearen erredua errepikatuz nota ona ateratzeko. Bernardok irakaslearen erredua entzun bai, baina gero erredakzioa bere era eta estilora egiten saiatzen zen, nahiz eta horrela nota beti 5 izan: *Irazu, cinco*. Behin *La tormenta* gai jarrita, Bernardok Virgilioren Eneidako pasarte bat kopiatu zuen ia hitzez hitz, eta orduan, *Irazu, seis* esan zion Hermano Bizentek zuzendutako idazlana emate-rakoan. Dena dela, etsenplu honekin eredu onen beharra azpimarratu nahi zigun sormena egon dadin: inportantea da modelo onak ezagutzea eta

barneratzea gero geurea den baliozko zerbait egin ahal izateko.

Garai hartako klasismoa ere aipatu zigun. Alde batetik, donostiarrak; bestetik, probintziatik etorritako *morroskoak* eta *kaxeroak*. Gaur egun beste etiketak eta klaseak ere izango dira ikasleen artean, noski. Zein izan daitezke etiketak? Horra gogoetarako utzi zigun gai polita.



Garrantzi handia eman zion feedback positiboari, alegia, gure bidean denok behar ditugu aurrera bultzatuko gaituzten hitz positiboak. Atxagak ondo gogoan zituen kolegioan entzundako hitz positibo horiek (Bereziartua apaizarenak, besteak beste): *Ondo idatzi duk, segi idazten, idazlana ondo zagok, jarraitu horrela...* Eragin handikoak izan ziren hitz horiek bere ibilbidean, gero Gabriel Arestirenak izango ziren bezala. Mezu ederra, irakasle jendearentzat, batik bat.

Beste kontu asko eta asko entzun genizkion, egoki eta modu ezin atseginagoan aletu zizkigunak: bere gustuko literatur pasarte jakin eta gomendagarri batzuk; hizkuntzaren beraren indar eraikitzailea benetako kontakizun bat idazterako orduan; bera ikasle zen garaiko kulturaren *jibarizazioa* (ikasleek hitz berri bat ikasi zuten) errejimen politikoa zela-eta; nahiz eta fisikan edo matematikan txarrak izan, badago etorkizunik, beti dago aurrera egiteko modua; euskara eta gaztelaniari buruzko gogoeta interesgarriak eta sakonak (ez ditu berak inondik ere etsaitzat hartzen), e.a.

Oso ekitaldi ederra izan zen eta denok ez tian egon ginen Atxagari entzuten. Pertsona apala, gertukoa, argia eta mezu aberatsekoa iruditu zitzairen gure ikasleei.

Aretokoa amaituta, Igeltegiko anaiekin eta Ikastetxeko zuzendaritzakoekin elkartu ginen bazkari eta berriketa goxoa partekatzeko. Zenbat izen eta pasadizo polit ez ote ziren atera elkarrizketan: Lete, Laboa, Zumeta, garaiko zenbait anaia eta irakasle...

Xabier Leteri buruz bazuela poema bat esan zigun, Xabier hil ondoren gorazarre moduan idatzia, eta bidaliko zigula.<sup>1</sup>

Eta horrela eman genion bukaera bisitaldiari. Askotan azaldu zigun Atxagak zein pozik zegoen bere ikastetxean egoteagatik. Gu, zer esanik ez. Berarentzat ere bisitaldi atsegina izan zen: *La Salle etxe dut oraindik ere* esan digu.

Niretzat, pertsonalki, oso egun berezia eta benetan gogoangarria izan zen. Egunari akats txiki bat bilatzeagatik: gaur egun ditugun baliabide teknikoak izanda, aretoko ekitaldiari zabalkunde dezente handiago eman zekiokkeen, baina, beno, beste batean akaso.

Mila esker, Bernardo.

<sup>1</sup> Eta halaxe, azkar asko genuen geure eskutan poema. Eta guk *Ihintza* aldizkari honetan argitaratzeko baimena eskatu eta baietza esanez berehala erantzun zigun eta hitzaurre bat ere egingo ziola berak agindu. (Aurreko orrialdeetan jarri da Xabier Lete, *azken gorazarrea*, Bernardo Atxagaren poema eta hitzaurrearekin.)





Bernardo

Atxaga

La Salle Donostian

75. urteurrena



*Bide asko izan daitezke berdinak,  
baina bide horiek egiteko moduak, Ionasena kasu,  
beti dira desberdinak.*



La  Salle

**GURE HEZKUNTZA SAREA EUSKAL HERRIAN**

Andoain - Beasain - Donostia La Salle - Donostia San Luis  
Eibar Azitain - Eibar Isasi - Irungo La Salle - Zarautz - Zumarraga  
Bilbo La Salle - Bilbo Elkarbanatuz - Sestao Andra Mari - Sestao Artizar